

**2018KO ABENDUAREN 3IKO TXOSTENA**

**1. OHARRA. INFORMAZIO OROKORRA ETA ENPRESAREN JARDUERA**

ARABAKO LANAK SAU sozietateak Gasteizen (Araba) dauka finkatuta bere egoitza soziala, Probintzia plazan, zenbakirik gabe, eta A-01277789 IFK dauka.

Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 853 liburukian, 33 folioan, VI-6371 zenbakiko orrian. I. inskripzioa.

ARABAKO LANAK SAU Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 816/1998 Erabakiaren bidez sortutako sozietate publikoa da.

ARABAKO LANAK SAU foru sozietate publikoa da, jarduera ekonomikoak eta foru zerbitzu deszentralizatuak kudeatzeari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauan ezarritakoaren babesean.

2012an Arabako Foru Aldundiak partaidetza zeukan hainbat sozietate publikoren berrantolaketari ekin zion, egitura horiek optimizatzeko, haiek soilduz eta, aldi berean, eskala ekonomiak lortuz. Helburu horrekin, Arabako Lanak SAk eskuratu egin zituen Arabako Foru Aldundiak Arabarri SAn zeuzkan akzioak (% 55,90) eta bere gain hartu zituen haren jarduera eta langileak, sozietate hori likidatzeko aurrepauso moduan. Gaur egun, Arabarri SAn jarduera bakarra aurreko ekitaldietako espedienteak ixtea da.

Sozietatearen helburua da ondoren azalduko ditugun obrak eta zerbitzuak proiektatzea, finantzatzea, azterlanak egitea, eraikitzea, zuzentzea, kontserbatzea eta ustiatzea, bere kabuz, hirugarrenen bidez edo emakidadun gisa, bere izenean edo honako erakunde publikoen hauen aginduz: Arabako Foru Aldundia, Arabako toki erakundeak eta Arabako erakundeek osatutako partzuergoak. Hori guztia mota guztietako azpiegituretako obra publikoetan eta, lehen aipatutako erakunde publikoek egindako edo euren titulartasunekoak diren azpiegiturei lotuta, instalatu edo garatu ahal diren zerbitzuei dagokienez. Horien artean, uraren ziklo osoarekin zerikusia dutenak daude, betiere, erakunde publiko horien eskumenekoak baldin badira, bai pertsonen erabilerarako, bai erabilera industrialerako, baita ureztatzeko ere. Horretarako bitarteko mota guztiak erabiliko dira, bereziki *teknologia berriak* deitutakoak. Helburua da uraren erabileraren arrazionaltasuna eta ur horniduraren kalitatea eta kantitatea bermatzea, kudeatzeko sistema eraginkorrak erabili ahal izatea, metodoak bateratzea eta eskalako ekonomiak lortzea; gainera, finantza orekaren kontzeptuak sartu nahi dira, prezio eta tarifa zuzenak ezarritik.

Orobat, aholkularitza lana egiten du eta azpiegitura eta zerbitzuetan modu batean edo bestean aplikagarriak edo eragileak diren kudeaketa sistema edo finantzaketa formulak bilatzen ditu. Horrez gainera, gerentzia zerbitzuak, eta Sozietateak bere egitekoen artean duen beste edozein zerbitzu, eman ahalko dizkie botere esleitzaila jotako beste sozietate edo erakunde batzuei, administrazio publikoa den ala ez kontuan hartu gabe, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak.

Azkenik, sozietatearen helburu soziala Birgaitzeko Hirigintza Sozietateen berezko xedeak eta funtzioak betetzea da, indarrean dagoen legerian definitu den moduan. Hortaz, xedeen artean honako hauek ere topatu daitezke:

- a) Gizarte eta hirigintza azterlanak prestatzea eta horien jarraipena egitea.
- b) Hirigintza plan eta proiektuak formulatzea, kargen eta etekinen banaketa eta indarrean dagoen hirigintza legediaren arabera izapidetze eta onespenerako ekimena barne.
- c) Mota guztietako eraikuntzak egiteko eta birgaitzeko proiektuak idaztea.

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

d) Birgaitzeko jarduketa diren obrak egitea, baita plan orokorretan, arau subsidiarioetan eta birgaitzeko plan berezietan Ondare Eraikiaren Babesari buruz dauden hirigintza arauak gauzatzea dakarren beste edozein obra ere.

e) Lurzoru programazioa eta prestakuntza sustatzea, plan orokorretan, arau subsidiarioetan eta birgaitze plan berezietan ondare eraikiaren babesari buruz dauden hirigintza arauetan ezarritakoa gauzatzeko helburuaz.

f) Onuraduna ez denean, desjabetze espedienteen idazketan eta kudeaketan laguntzea.

g) Plan Orokorrak, Arau Subsidiarioak eta Birgaitze Plan Bereziak gauzatzearen ondorio diren mota guztietako ondasun, obra eta zerbitzuak kudeatu, ustiatu eta mantentzea, baita Birgaitze Integratuko Eremuen, Hirigintza Katalogoen eta kultura intereseko ondasun kalifikatu eta inbentariatuaren barruan sartutakoak ere.

h) Kultura ondare eraikia –zentzurik zabalenean– babesteko helburua duten mota guztietako ekintzak burutzea, babesa ezagutza, mantentze, leheneratze, zaharberrikuntza, balioa emate eta zabalkunde bezala hartuta.

i) Sozietateak edo administrazioak bere ahalmenak gauzatzeko behar duen beste edozein agiri tekniko edo juridiko prestatzea.

j) Aurreko xedeei zuzenean edo zeharka lotuta dagoen beste edozein eginkizun.

2016ko uztailaren 20an sozietatearen akziodunen ezohiko batzar orokorrak sozietatea desegitea, administrazio organoa uztea eta Iñaki Guillerna Saenz jauna eta Iñaki Aldekogarai Labaka jauna likidatzaile solidario izendatzea erabaki zuen, 2016ko abuztuaren 2an Luis Perez Lazarraga notarioaren aurrean haren protokolo 926 zenbakiarekin emandako eskritura publikoan jasotzen denez.

## **2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK**

### **2.1. Irudi zehatza:**

2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko kontuak (erantsitakoak) sozietatearen 2018ko abenduaren 31ko kontabilitate erregistroetatik atera dira, eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorraren (abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuak aldatua) eta kontabilitate arloko lege xedapenen arabera aurkeztu dira, sozietatearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakutsita.

2016ko uztailaren 20ko batzar orokorrean sozietatea desegiteko hartutako erabakiaren ondoren, sozietatearen jarduera bere likidazioa egiteko behar diren izapideak egitean datza eta, beraz, ondare elementuen balorazioaren helburua da aktiboa egiteko, zorrak kitatzeko eta, kasuan kasu, ateratako ondarea banatzeko eragiketen irudi zehatza erakustea.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak onetsi beharko ditu honekin batera doazen urteko kontuak, eta aldaketarik gabe onartuko direla irizten dio. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2018ko uztailaren 17ko Ohiko Batzar Orokorrean onetsi ziren.

Sozietatea ez dago legez behartuta 2017ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzera, baina ikuskatu egin dira, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

**2018KO ABENDUAREN 3IKO TXOSTENA**

**2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena**

Sozietatearen likidazio egoera eta aktiboak berreskuratzeko, eta kontuan hartuta epea likidatzen ari den sozietatearen kasuan murriztu egiten dela, aktiboak narriatu egin dira eta ez da espero haien zenbatekoa berreskuratzea.

Zehazki, erabilerako balioaren irizpideak ez dauka garrantzirik eta balio garbi bihurgarriaren eta balio eguneratuaren irizpideak, kontzeptu horiek Kontabilitatearen Esparru Kontzeptuarean definitzen diren bezala, enpresa dagoen likidazio egoera kontuan hartuz aplikatu beharko dira.

1. oharrean eta ohar honen aurreko puntuetan adierazi denez, likidatzaileen ustez funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa ez da aplikagarria, 2016ko uztailaren 20ko akziodunen ezohiko batzar orokorrean sozietatearen likidazioa onartu baitzen. Ondorioz, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuak aurkeztean, ICACen funtzionatzen ari den enpresaren printzipioa aplikagarria ez deneko finantza informazioaren esparruari buruzko 2013ko urriaren 18ko Ebazpena aplikatu da.

Irizpide horien aplikazioak, ordea, ez dakar aldaketa esanguratsurik finantza egoerak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioaren pean egiteari dagokionez.

Erantsitako urteko kontuetan, batzuetan, sozietatearen zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili izan dira, bertan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko.

Zenbatespen horiek taxutzeko, aztertutako gertakariei buruz urteko kontuak egiterakoan zegoen informaziorik onena erabili zen. Hala ere, baliteke, etorkizunean, hurrengo ekitaldi batzuetan zenbatespenok aldatzera behartzen duten (gorantz edo beherantz) gertakariak egotea, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera-irabazien kontuetan.

**2.3. Informazioaren alderaketa:**

Merkataritzako legeriarekin bat etorritik, likidatzaileek 2018ko ekitaldiko kopuruez gainera, 2017koak ere aurkezten dituzte, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin, eskudiru fluxuen egoerarekin eta memoriarekin erkatu ahal izateko.

**2.4. Partida batean baino gehiagoan jasotako elementuak:**

Ez dago Egoera Balantzeko partida ezberdinetan sartu den antzeko elementurik.

**2.5. Hutsen zuzenketa:**

Ekitaldia ixtean ez da aurkitu kontuak berriz egiteko moduko hutsik. Ekitaldia itxi ostean zenbatespenetan doikuntzak egitea dakarren gertaera ezagunik antzemango balitz, ekitaldia ixtean dagokien ataletan aipatuko litzateke.

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA****3. OHARRA. EMAITZEN BANAKETA**

Likidatzaileek 2017ko eta 2018ko ekitaldietako galera banaketa honen arabera aplikatzea proposatzen diote Batzar Orokorrari:

<b>Banaketa orria</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
Ekitaldiko emaitza	289.569,43	-30.599,93
Bazkideen ekarpenak	0,00	30.061,86
<b>Banaketa onarria guztira</b>	<b>289.569,43</b>	<b>-538,07</b>
<b>Banaketa proposamena</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
Legezko erreserbara	10.389,17	0,00
Borondatezko erreserbetara	278.642,19	0,00
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboetara negativos de ejercicios anteriores	538,07	-538,07
<b>Guztira</b>	<b>289.569,43</b>	<b>-538,07</b>

2018ko ekitaldian ez da banatu konturako dibidendurik.

**4. OHARRA. ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK****4.1. Ibilgetu ukiezina:**

Ibilgetu ukiezina, hasieran, kostuaren arabera baloratzen da; hau da, eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera.

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina baloratzean kostua ken haren amortizazio metatua hartzen dira kontuan; baita, hala badagokio, erregistratu diren narriatzearen ziozko zuzenketen zenbateko metatua ere.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri zehatzeko aktiboak dira eta, beraz, haien amortizazio sistematikoa egiten da, arrazoizko moduan, aktiboari datxezkion etekin ekonomikoek enpresarentzat errendimenduak sortuko dituztela aurreikusten den epean.

Aktibo horien bizitza baliagarria era fidagarrian zenbaterik ez dagoenean hamar urteko epean amortizatuko dira, ibilgetu ukiezinari buruzko arau berezietan ezarritako epeak ere kontuan hartuz.

Urtero balioa narriatzearen zantzurik dagoen aztertzen da, hala bada, balizko narriadura egiaztatzeko.

Pro indiviso erabilera eskubidearen lagatzea jasotzen da, 10 urterako eta doan, Arabako Foru Aldundiarenak diren eta Gasteizko Domingo Beltran kaleko 4. eta 6.eko behean dauden lokalak, Arabako Foru Aldundiarengandik jasoak. Duten arrazoizko balioarekin islatu dira, eta erregistratu da ondare garbiari zuzenean atxikitako ordain gisa. Inbertsio horren amortizazioa bere bizitza erabilgarriaren arabera egiten da, hau da, lagatze akordioaren iraupenaren arabera.

Aplikazio informatikoetako epigrafean programa informatikoak erabiltzeko eskubideagatik edo horien jabetza eskuratzeagatik ordaindutako zenbatekoak jasotzen dira, baina soilik horien erabilerak ekitaldi bat baino gehiago hartuko duela aurrez ikusi den kasuetan.

Gastu horien amortizazioa era linealean egiten da, gehienez ere bost urteko epean, aplikazio informatikoa erabiltzen hasten denetik kontaktzen hasita.

Aplikazio informatiko horien mantentze gastuak sortu diren ekitaldiko gastu gisa egozten dira zuzenean.

2018ko abenduaren 31n bajaran emanda daude partida honetako elementu guztiak.

**2018KO ABENDUAREN 3IKO TXOSTENA**

**4.2. Ibilgetu materiala:**

Ibilgetu materiala eskuratze kostuaren, hau da, amortizazio metatuaren kostu garbiaren, arabera baloratu da, izan diren narriatzearen ziozko galerak aintzat hartuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindu den prezioaz gainera, eraikitze aldian zehar sortu diren finantza gastuak ere sartzen dira kostuan, baldin eta horiek aktiboa eskuratzeari edo fabrikatzeari zuzenean egotzi ahal bazaizkio eta erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino denbora luzeagoa behar badute.

Elementu osoen ordezkapenak edo berrikuntzak, xede den ondasunaren bizitza baliagarria areagotzen duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntza kostuak, produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa, horiek guztiak ibilgetu materialaren zenbateko handiago gisa zenbatzen dira eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Sortzapen printzipioa betez, mantentzeko, artatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak, egiten diren ekitaldiko kostu moduan egozten zaizkie emaitzei.

Amortizazioa kalkulatzeko da metodo lineala aplikatuz aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean eta gero hondar balioa kenduz; izan ere, kontuan hartu behar da eraikinen eta bestelako eraikuntzen lurrek bizitza baliagarri mugagabea dutela eta, beraz, ezin direla amortizatu.

Ibilgetu materialaren amortizazioak modu sistematikoan eta arrazoiz ezartzen dira, ondasunen bizitza baliagarriaren eta hondar balioaren arabera, ondasun horiei eragin diezaiekeen zaharkitze tekniko edo komertziala kontuan hartzeari uko egin gabe. Honako koefiziente hauek erabili dira epigrafe honetan jasotako ibilgetuko elementuak amortizatzeko zuzkidura kalkulatzeko:

Informazio prozesuetarako ekipoak: 25%

Altzariak: 15%

Arabako Lanak SAUk eta haren akziodun bakarrak sinatutako hitzarmen orokorrak xedatutakoarekin bat etorrita (bi aldeen arteko harremanak arautzen ditu), Sozietateari garatzeko eta egiteko agindu zaizkion azpiegiturak jabari publikotzat hartuko dira eta, ondorioz, ezingo dira haren ondareztat hartu.

Ildo horretan, obra kontratuen esleipendunek emandako obra ziurtapenen zenbatekoa pasibo kontuetan jasotzen da, eta kobrantza eskubideak kontrapartida gisa erregistratzen dira. Era berean, sozietateak Arabako Foru Aldundiaren aurrean dituen kobrantza eskubideak kontratisten esku lagatzeak hasiera batean kontabilizatu beharreko zorrak eta hartzeoak ordaintzea eta kobratzea dakar.

2017ko ekitaldian bajan eman ziren partida honetako elementu guztiak.

**4.3. Finantza aktiboak:**

Sozietateak epigrafe honetan bezeroen eta zordunen saldoak erregistratzen ditu, urtebete baino gutxiagoko kobratzeko epemuga dutenak.

Hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, gertatutako transakzio kostuak barne; gero, amortizatutako kostuan baloratzen dira.

Eskudirua eta bestelako bitarteko baliokideak” partidari kutzako eta bankuko eskudirua erregistratzen da.

**4.4. Finantza-pasiboak:**

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko zor eta partidak balio nominalarekin bat datorren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

**4.5. Mozkinen gaineko zerga:**

**2018KO ABENDUAREN 3IKO TXOSTENA**

Zuhurtasun irizpideari jarraikiz, sozietateak ez du erregistratzen zerga oinarri negatiboan ondoriozko zerga kreditua, eta gastu txikitat jotzen du sozietateen gaineko zerga aplikatzen diren ekitaldian.

**4.6. Diru sarrerak eta gastuak:**

Zerbitzuak emateagatiko diru sarrerak aitortzeko, transakzioaren emaitza fidagarritasunez baloratu behar da, ekitaldia ixtean emandako zerbitzuaren ehunekoa kontuan hartuta.

Horrela, zerbitzuak ematearen diru sarrerak honako baldintza guzti-guztiak betez gero baino ez dira kontabilizatzen:

- Diru sarreren zenbatekoa fidagarritasunez balora daiteke.
- Baliteke enpresak transakzioaren ondoriozko ekonomia irabazi edo etekinak jasotzea.
- Ekitaldiaren itxiera datan transakzioa zenbateraino egin den fidagarritasunez balora daiteke.
- Zerbitzua ematearen ondoriozko kostuak eta hura osotasunean eman arte gertatuko direnak fidagarritasunez balora daitezke.

Zerbitzuak ematea eragiten duen transakzioaren emaitza modu fidagarrian baloratu ezin bada, aitortutako gastuak berreskuragarritzat hartzen direnean baino ez dira aitortuko diru sarreratzat.

**4.7. Hornidurak eta kontingentziak:**

Egoeraren balantzea egiten den egunean dauden obligazioek (aurreko inguruabarren ondorioz sortu direnak), sozietateari ondarean kalteak ekarriko badizkiote eta zenbatekoa eta kitatzeko unea mugagabeak badira, hornidura moduan erregistratzen dira egoera balantzean, zenbatespenen arabera sozietateak obligazioa kitatzeko ordaindu beharko duen zenbatekoaren egungo balioarekin.

Horiek eragin dituen egitatearen ondorioei buruz dagoen informaziorik hoberena kontuan hartuz kuantifikatzen dira, eta kontabilitatea ixten den bakoitzean zenbatesten dira –hasieran aitortzearen xede ziren eginbehar zehatzei aurre egiteko erabiltzen dira, eta lehengoratu egiten dira, osorik edo zati batean, holako eginbeharrak desagertu edo murrizten direnean.

**4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak:**

Itzuli ezin diren kapitaleko dirulaguntzetan, emandako zenbatekoa baloratzen da. Hasieran zuzenean ondare garbiari egotzitako diru sarrera moduan aitortzen dira eta emaitzei egotzen zaizkie dirulaguntzen bidez finantzatutako aktiboek aldi horretan izan duten balio galeraren arabera. Besterentzen direnean edo inbentariotik kentzen direnean, hori egin den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Itzultzeko diren dirulaguntzen izaera duten bitartean, pasibo moduan kontabilizatzen dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko diru sarrera moduan egotzen dira.

Izakinei lotutako dirulaguntzen kasuan, ekitaldiko diru sarreretara egotziko dira besterentzen direnean, narriatzearen ziozko balio zuzenketa egiten zaienean edo balantzean baja ematen zaienean.

**4.9. Lotura duten enpresen arteko transakzioak**

Sozietateak merkatu balioan egiten ditu lotura duten alderdiekin egin beharreko transakzio guztiak. Halaber, transferentzia prezioak behar bezala jasanda daude. Horregatik, sozietateko likidatzaileek uste dute ez

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

dagoela arrisku esanguratsurik, hain zuzen, alderdi horren ondorioz etorkizunean sor daitezkeen pasiboen inguruan.

**5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA**

**5.1.- Ibilgetu ukiezinaren mugimenduak.**

<b>G) Hasierako saldo gordina 2018an</b>	<b>16.920,60</b>	<b>0,00</b>	<b>16.920,60</b>
(+) Sarrerak	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak	-16.920,60	0,00	-16.920,60
<b>H) Bukaerako saldo gordina 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>I) Amortiz. met. hasierako saldoa 2018an</b>	<b>16.920,60</b>	<b>0,00</b>	<b>16.920,60</b>
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00
(+) Eskuraketan edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	-16.920,60	0,00	-16.920,60
<b>J) Amortiz. met. bukaerako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>K) Narraitzearen balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
(+) Ekitaldian onartutako narraitzearen balio zuzenketa	0,00	0,00	0,00
(-) Narraitzearen balio zuzenketaren lehengoratzea	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00
<b>L) Narraitzearen balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>Bukaerako saldo garbia 2017an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

2012ko maiatzaren 29an Arabako Foru Aldundiaren Diputatu Kontseiluak 240. Erabakia eman zuen. Han, Gasteizko Domingo Beltran kaleko 4. eta 6. zenbakiko beheko solairuan dauden Arabako Foru Aldundiaren jabetzako lonjen pro indiviso erabileraren lagapena sinatu zen Arabako Lanak SAUren alde, 10 urterako eta doan, bulegoetarako eta ibilgailuak gordetzeko erabiltzeko. Lonja horiek, hurrenez hurren, 296,19 m<sup>2</sup> eta 176,98 m<sup>2</sup>-koak dira. Lokal horien pro indiviso erabilera eskubidearen lagatzea jasotzen da, 10 urterako eta doan. Duten arrazoizko balioarekin islatu dira, eta erregistratu da ondare garbiari zuzenean atxikitako ordain gisa. Inbertsio horren amortizazioa bere bizitza erabilgarriaren arabera egiten da, hau da, lagatze akordioaren iraupenaren arabera.

Batzar Orokorrak sozietatea desegin eta 2016ko urriaz geroztik langile guztiak subrogatzeko hartutako erabakiaren ondorioz, sozietateak ibilgetu ukiezinaren balioa narriatu zuen, narriaduraren kontabilitate balio garbia 207.741,80 eurokoa izanik. 2018an baja eman zaio gainerako ibilgetu ukiezinari, eta, beraz, 2018ko abenduaren 31n ez du baliorik.

Era berean, eta desegiteko erabaki horren ondorioz, 2017ko ekitaldian, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 6ko 339/2017 Erabakiaren bidez, onetsi zen Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoari atxikitzea Gasteizko Domingo Beltran kaleko 4. eta 6. zenbakietan bulego eta garajeak jartzeko higiezinak eta, beraz, sozietateak baja eman zion ibilgetu horri bere kontabilitatean.

**6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA**

**6.1.- Ibilgetu materialaren mugimenduak.**

Erantsitako egoera balantzeko kapitulu honetan mugimendu hauek izan dira:

## ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA

	Ibilgetu materiala			GUZTIRA
	Altzariak	Ekipo informatikoak	Bestelako instalazioak	
<b>A) Hasierako saldo gordina 2017an</b>	<b>22.674,57</b>	<b>47.503,70</b>	<b>5.735,10</b>	<b>75.913,37</b>
(+) Sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak	-22.674,57	-47.503,70	-5.735,10	-75.913,37
<b>B) Bukaerako saldo gordina 2017an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>C) Amortiz. met. hasierako 2017an</b>	<b>22.108,19</b>	<b>46.421,46</b>	<b>1.309,46</b>	<b>69.839,11</b>
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	-22.108,19	-46.421,46	-1.309,46	-69.839,11
<b>D) Amortiz. met. bukaerako saldoa 2017an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>E) Narraiatzearen balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2017an</b>	<b>566,37</b>	<b>1.082,25</b>	<b>4.425,64</b>	<b>6.074,26</b>
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Narraiatzearen balio zuzenketaren lehengoratzea	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	-566,37	-1.082,25	-4.425,64	-6.074,26
<b>F) Narraiatzearen balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2017an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>G) Hasierako saldo gordina 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
(+) Sarrerak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Irteerak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>H) Bukaerako saldo gordina 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>I) Amortiz. met. hasierako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
(+) Ekitaldiko amortizazio zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
(+) Eskuraketen edo intsuldaketen gehikuntzak	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>J) Amortiz. met. hasierako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>K) Narraiatzearen balio zuzenketa. Hasierako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
(+) Narraiatzearen balio zuzenketa ekitaldian onartuta	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Narraiatzearen balio zuzenketaren lehengoratzea	0,00	0,00	0,00	0,00
(-) Bajen, irteeren edo intsuldaketen murrizketak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>L) Narraiatzearen balio zuzenketa. Bukaerako saldoa 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>Bukaerako saldo garbia 2017an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>Bukaerako saldo garbia 2018an</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

2018ko abenduaren 31n, ibilgetu materialaren kontabilitate balio garbia zero euro zen, elementu guztien baja egin zelako 2017ko ekitaldian, sozietatea desegiteko erabakiaren eta sozietatearen bulegoak Arabako Foru Suhiltzaileak erakundeari atxikitzearen ondorioz. Ibilgetu materiala batez ere altzariak eta ekipamendu informatikoak osatzen zuten.

**7. OHARRA. FINANTZA TRESNAK****7.1. Finantza aktiboak**

Sozietatearen balantzeko aktiboaren epe luzeko finantza baliabideen informazioa hau da:

	Kredituak, deribatuak eta bestelakoak
<b>Hasierako saldoa 2017ko ekitaldian</b>	1.604,44
(+) Altak	0,00
(-) Irteerak eta murrizketak	-1.604,44
(+/-) Traspasoak eta bestelako aldaketak	0,00
<b>Bukaerako saldoa 2017ko ekitaldian</b>	<b>0,00</b>
(+) Altak	0,00
(-) Irteerak eta murrizketak	0,00
(+/-) Traspasoak eta bestelako aldaketak	0,00
<b>Bukaerako saldoa 2018ko ekitaldian</b>	<b>0,00</b>



## ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

### 2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA

Sozietateak hirugarrenekin epe luzera ezarritako fidantzei buruzkoa zen.

#### 7.2. Taldeko enpresentzako kredituak

Honela dago osatuta:

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Epe luzerako kredituak "Arabarri S.A."	0,00	437.551,52
Epe laburrerako kredituak "Arabarri S.A."	397.551,51	0,00

“Taldeko enpresentzako kredituak” partidak jasotzen du, bai epe laburrera, bai epe luzera, Arabako Lanak SAk 2016ko ekainaren 21ean berak partaidetutako Arabarri SAri egindako partaidetza maileguaren zenbatekoa. Haren epemuga 2018ko ekainaren 21a zen eta, beraz, egun epea amaituta dago. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta egun bi sozietateak likidazio egoeran daudela, bi entitateek adostu dute kontu korrontean geratzen den saldoa mantentzea eta berandutze interesik ez sortzea, likidazio eskriturak eman ahal izateko zain dauden bitartean.

2018ko ekitaldian, Arabarri SAk 40.000 euro amortizatu ditu Arabako Lanak SA sozietateak emandako epe luzeko partaidetza mailegutik. 2018ko ekitaldian, Arabarri SA sozietateak kreditu horren 50.000 euro amortizatu zituen.

#### 7.3 Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak.

ARABAKO LANAK-EN PARTAIDETZAK BESTE ENPRESA BATZUETAN				
Enpresa	Akzio kopurua	Erosketa balioa	Balio nominala	Kapitalaren %
Arabarri, S.A	1.118,00	1,12	42.484,00	55,90%

2012ko irailaren 11n, Diputatuen Kontseiluaren 2012/133 Erabakiaren arabera, Arabako Foru Aldundiak zeuzkan Aranbarri SA sozietatearen akzioak (% 55,90) Arabako Lanak SAri saltzea erabaki zuen, lehenengoa desegin eta likidatu aurreko urrats gisa.

Besterentze prezioa 1,12 euro izan zen.

2012ko abenduaren 24an, Arabako Lanak SAUren ordezkariak Arabarri SA foru sozietate publikoaren aldeko 86.000 euroko zenbatekoa erabiltzea erabaki zuten, 2012ko ekitaldiko galerak neurri batean konpentsatzeko. Sozietateak zenbateko hori narriatu zuen 2012ko ekitaldian eskumendeko enpresak zenbateko hori itzuliko ez zuela uste zuelako.

Enpresa horren inguruko 2017ko abenduaren 31ko eta 2018ko abenduaren 31ko informazioa honako taula honetan zehazten da:

## ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Ekitaldiko emaitzak	343.696,98	13.529,55
Funts propioak	181.218,00	-162.478,98
Ondare garbia	181.218,00	1.463.459,00

Kontuan hartuta Arabarri SAK 2018ko ekitaldian likidatzeko gauzatutako erregularizazioak, haren ondasun egoera onbideratu egin da eta, egokia da aipatutako narriadura aplikatzea.

	2017ko saldoa	2018ko gehikuntza	2018ko bajak	Guztira
Arabarri, S.A	86.001,12	0,00	0,00	86.001,12
Narriadura	-86.000,00	0,00	86.000,00	0,00
<b>Akzioen balioa 2018/12/31n</b>				<b>86.001,12</b>

**7.4 Epe laburreko finantza aktiboak**

Hona hemen sozietatearen balantzeko aktiboaren epe laburreko finantza baliabideen informazioa, eskudirua, herri administrazioen kredituak eta bestelako aktibo likido baliokideak kontuan hartu gabe:

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Kobratu beharreko mailegu eta parti	51.930,76	29.424,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>51.930,76</b>	<b>29.424,75</b>

"Aktiboak kobratu beharreko mailegu eta partidaren kategorian sartzen dira; hona xehetasunak:"

<b>KOBRATU BEHARREKO MAILEGU ETA PARTIDAK</b>	<b>Saldos a 31/12/18</b>	<b>Saldos a 31/12/17</b>
<b>Zordunak</b>	<b>51.930,76</b>	<b>26.833,72</b>
Toki erakunde zordunak ziurtapen arabera	51.930,76	26.833,72
<b>Gastu Aurreratuak</b>	<b>0,00</b>	<b>2.591,03</b>
<b>Guztira</b>	<b>51.930,76</b>	<b>29.424,75</b>

**-Toki erakundeak ziurtapenengatik zordun, 51.930,76 euro (2017an 26.833,72 euro):**

Toki erakundeek euren obrak eraikitzeke proiektua idatzi, lizitatu eta kontratatzeke agintzen zioten Arabako Lanak SAUri, bai eta zuzendaritza fakultatiboaz arduratzeko eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa egiteko ere.

2018ko abenduaren 31n, saldoa 51.930,76 eurokoa zen eta 2014ko irailaren 23an agindutako mandatuari zegokion. Mandatu horren arabera, likidazioan dagoen Arabako Lanak SAUK kontzejuaren izenean jardungo zuen, zeinak enkarguen kostu guztia hartuko zuen bere gain. Obrak 2016ko uztailearen 26an jaso zituen Administrazio Batzarrak. (10.1. oharra)

Sozietatearen likidatzaileek ez dute beharrezkotzat jo kreditu hori narriatzea, aintzinakoa izan arren; izan ere, kreditu bat denez, akziodun bakarrari, Arabako Foru Aldundiari, esleituko zaio eta hura arduratuko da kobratzeaz Administrazioak horretarako dituen tresnak baliatuz.

“Toki erakundea, ziurtapen zordunak, narriadura” partidak mugimendu hauek izan ditu:

## ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

Ziurtapen zordun toki erakundeen narraiadura	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
Hasierako saldoa	0,00	26.247,38
(+) Gehiketak	0,00	0,00
(-) Murrizketak	0,00	0,00
(+/-) Traspasoa/Aplikazioak	0,00	-26.247,38
Bukaerako saldoa	0,00	0,00

**7.5. Finantza pasiboak**

Hauxe da sozietatearen balantzeko epe luzeko finantza baliabideen informazioa, kategoriatan banatuta:

	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
Ordaindu beharreko maileguak eta partidak	0,00	98.388,77
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>98.388,77</b>

Hauxe da sozietatearen balantzeko epe laburreko finantza baliabideen informazioa, kategoriatan banatuta:

	2018ko Ekitaldia	2017ko Ekitaldia
Ordaindu beharreko maileguak eta partidak	239.513,71	315.962,66
<b>GUZTIRA</b>	<b>239.513,71</b>	<b>315.962,66</b>

Pasiboak ordaindu beharreko zor eta partiden kategorian sartzen dira; hona xehetasuna:

Norbanako Hartzekodunak dirulaguntzengatik (10.1 Oharra)	0,00	37.237,29
<b>Beste finantza-pasibo batzuk</b>	<b>225.000,00</b>	<b>214.046,56</b>
Mandatura: Pavia Norte, S.L.ren gauzatzea ( 10.1 Oharra)	0,00	16.204,39
Kontu korrantea bazkide eta administrariekin	225.000,00	125.000,00
Epe laburrera jasotako gordailuak (10.1 Oharra)	0,00	2.000,00
Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburrerako zorrak (10.1 Oharra)	0,00	70.842,17
<b>GUZTIRA</b>	<b>239.513,71</b>	<b>414.351,43</b>

Epe luzeko erantzukizunagatiko horniduren zenbatekoa Arabarri SA sozietatearen funts propioen zatiaren gaineko partaidetza ehunekoari dagozkion beste erantzukizunetarako hornidura bati dagozkie. Arabako Lanak SAU Arabarri SAren akziodun maioritarioa da. 2018ko ekitaldian baja eman zaio hornidura horri, Arabarri SAren ondarearen egoera onbideratzearen ondorioz. (7.3. oharra)

Dirulaguntzen ente eta partikular hartzekodunen partidak dirulaguntza itzulgarriei dagozkie.

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

2018ko ekitaldian, sozietateak 100.000 € jaso zituen Arabako Foru Aldunditik, diruzaintza aurrerakin gisa, eta, ondorioz, 2018ko abenduaren 31n, saldoa 225.000 € zen, eta sozietatea likidatzen denean kitatuko da, ondasun garbi nahikoa baitago.

**8. OHARRA. FUNTS PROPIOAK**

2012-11-08 arte, sozietatearen kapitala 60.101,21 eurokoa zen, klase bereko 10 akzio izendunez osatua (akzio bakoitzaren balio nominala: 6.010,121 euro).

2012-11-08an akziodunen Batzar Orokorrak Arabako Lanak SAUren akzioen balio nominala akzioko 6.010,121 eurotik 6,010121 eurora jaitea onetsi zuen, sozietatearen kapital soziala osatzen zuten 10,00 (hamar) akzio izendunak 10.000 (hamar mila) akzio berritan zatituz, akzio zahar bakoitzeko 1.000 (mila) akzio berriko proportzioan, sozietatearen kapital sozialaren zifrarik aldatu gabe. Horren ondorioz, bakoitzak 6.010,121 euroko balio nominala zuten akzioak ordeztu egin ziren bakoitzak 6,010121 euroko balioa zuten akzioekin.

Halaber, akzio izendunen bi sail sortu ziren, A eta B izenekoak, jaulkipen hauen bitartez eratuta: A saileko 9.500 (bederatzi mila eta bostehun) eta B saileko 500 (bostehun), bakoitza 6,010121 euroko balio nominalekoa. Akzio berriak, tituluez ordezkatuak, zenbakituta geratzen dira, A sailekoak 1etik 9.500era, biak barne, eta B sailekoak 9.501etik 10.000ra, biak barne. Bi sailak osorik harpidetu eta ordainduta daude; B sailekoek estatutueta ematen zaien pribilegioa izango dute, esan zen eran.

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 13ko 574/2012 Erabakiaren bidez, onetsi zen doako besterentzea egitea hala eskatzen duten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen alde, Arabako Lanak SAUren kapital sozialeko B saileko akzioen dohaintza kontratuaren bitartez.

2014ko uztailaren 3an, Arabako Foru Aldundia SAK Arabako Lanak SAUren akzioen B klaseko akzio bat laga zuen Urizaharreko Kontzejuaren alde.

Erakundea desagitea erabakita, berretsi da emandako akzioak ez direla aurreikusitako xederako erabiliko. Izan ere, xede hori sozietatearen helburu soziala garatzea da. Ondorioz, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak azaroaren 15eko 759/2016 Erabakia eman zuen. Haren bidez, arestiko toki erakundeetan harpidetutako akzio bat emateko kontratuen 7. artikuluan xedatutako itzulketa eskubidea aldundi horren alde erabili zen.

Erabaki hori akzioen baten titularrak ziren erakunde guztiei jakinarazi zitzairen, eta kontuak egin diren egunean erakunde horiekin guztiekin izenpetu dira Arabako Lanak SAUren akzioa itzultzeko kontratuak. 2018ko lehenengo seihilekoan prozesua amaituta, 2018ko uztailaren 10ean 1.002 eskritura eman zen, Luis Pérez de Lazárraga Villanueva notario jaunaren aurrean, eta horren bidez sozietatea bazkide bakarraz osatuta dagoela aitortu zen; hain zuzen ere, Arabako foru Aldundia da akziodun bakarra.

**9. OHARRA. ZERGA EGOERA**

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 3IKO TXOSTENA**

2017ko eta 2018ko ekitaldiak ixtean, ondoko hauek ziren sozietateak erakunde publikoekin zituen saldoak:

	2018ko EKITALDIA		2017ko EKITALDIA	
	Zorduna	Hartzekoduna	Zorduna	Hartzekoduna
Ogasun publikoa BEZagatik zorduna	10.157,44	0,00	4.333,90	0,00
Ogasun publikoa zorduna egindako atxikipenengatik	0,00	15,97	0,00	1.553,57
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.157,44</b>	<b>15,97</b>	<b>4.333,90</b>	<b>1.553,57</b>

Sozietateen gaineko zergari dagokion gastua dela eta, nahiz eta zerga oinarria positiboa izan, ez da zergaren ondoriozko gasturik izan; izan ere, aurreko ekitaldietan kreditu fiskal gisa erregistratu ez ziren zerga oinarri negatiboekin konpentsatu da.

Hona hemen konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboen xehetasunak eta ekitaldian izan duten eboluzioa:

Zerga-Oinarri Negatiboa sorzen ekitaldia	17.12.31an konpentsatzeko daudenak	2018an sortutako Zerga-Oinarri Negatiboa	2018ko Sozietate-Zergan konpentsatuak	18.12.31n konpentsatzeko daudenak
2003	37.032,97	--	37.032,97	0,00
2004	699.432,07	--	200.605,70	498.826,37
2005	75.122,50	--	--	75.122,50
2006	6.563,88	--	--	6.563,88
2007	239.918,82	--	--	239.918,82
2008	247.280,17	--	--	247.280,17
2009	464.659,58	--	--	464.659,58
2010	387.056,98	--	--	387.056,98
2011	238.841,18	--	--	238.841,18
2012	496.982,02	--	--	496.982,02
2013	966.680,43	--	--	966.680,43
2014	817.614,76	--	--	817.614,76
2015	867.853,37	--	--	867.853,37
2016	706.062,71	--	--	706.062,71
2017	30.599,93	--	--	30.599,93
<b>Total</b>	<b>6.281.701,37</b>	<b>--</b>	<b>237.638,67</b>	<b>6.044.062,70</b>

**10. OHARRA. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK**

2018ko ekitaldian sortutako diru sarrerak eta gastuek osatzen dute ekitaldiko emaitza.

**10.1. Diru sarrerak**

**- Zerbitzu emateak**

Sozietateak ez du zerbitzuak ematearen ondoriozko diru sarrerarik izan, ez 2017ko ekitaldian, ez 2018koan.

**- Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk: Sarrera gehigarriak eta ohiko kudeaketak eragindako bestelako sarrerak.**

Diru sarreraren epigrafe honen barruan ekitaldian transferitutako dirulaguntzen eta legatuaren ezeztatzeak jasotzen dira. 2018ko ekitaldian zenbateko hori 1.096,82 izan da, espediente bat ebatzi delako, eta 2017an ez zen diru sarrerarik izan ustiapen dirulaguntzen ondorioz. (12.2 oharra)

## ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

### 2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA

2018ko ekitaldian, gainera, beste kudeaketa sarrera batzuk jaso dira (3.528,00 euro), eta Paviál Norte SLk jarritako demandaren zerbitzu sarien fakturari dagozkio. (Nota 7.5).

- **Ezohioko sarrerak**, 167.842,71€, honela banatuta:

- 95.518,18 euro, "Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburrerako zorrak" partidaren finantza pasibo gisa zenbatutako dirulaguntzei dagozkionak, eta sozietateak emaitzetara pasa dituenak itzuli ezin direla pentsatuta.

- 16.204,39 euro, 351/2014 Ohiko Prozeduran Gasteizko Administrazio Auzibideetarako 2 epaitegiak 2017ko urtarrilaren 13an emandako 7/2017 Epaia dela eta (Euskadiko Justizia Auzitegi gorenak berretsia) Paviál Norte SLri kobratutako abalari dagozkionak.

- 18.872,77 euro, kontratistari agindutako obrak gauzatzeko zordundutako zenbatekoei bermea aplikatzearen ondoriozko sarrerari dagozkionak.

- 26.247,37 € 2014ko irailaren 23an agindutako mandatuaren kobrantza eskubideei dagozkionak. (7.4 oharra)

- 2.000,00, beste abal batzuk erregularizatzeari dagozkionak.

- 9.000,00 euro, hornitzaileen saldoak erregularizatzeari dagozkionak.

#### 10.2. Gastuak

- **Langileen gastuak**

Hona hemen galera-irabazien kontuko "Langile gastuak" izeneko partida, banakatuta:

Gastos de Personal	Langileak 2018/12/31n	Langileak 2017/12/31n
Lansariak, soldatak eta asimilatuak	0,00	8.346,78
<b>Sozietate kargak:</b>	<b>6.089,82</b>	<b>0,00</b>
Enpresare konturako Gizarte Segurantzak	6.089,82	0,00
<b>Guztira</b>	<b>6.089,82</b>	<b>8.346,78</b>

2012-09-13an, Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoko eta Araba Uraren Agentzia SAUko langile guztiak Arabako Lanak SAUk subrogatu zituen, bat izan ezik, 2012-10-17an erretiroa hartu baitzuen.

2018ko langileen gastuak antzinako langile batengatik Gizarte Segurantzarekin zegoen zorrari dagozkio. 2017ko ekitaldiko langileen gastuak kaleratzeen ondoriozko kalte ordainei dagozkie.

Langileak 2016-11-01ean subrogatu ziren eta 2016-10-31n baja eman zitzaizen Arabako Lanak sozietatean.

- **Ekitaldiko langileak**

2017ko eta 2018ko ekitaldietan, Arabako Lanak SAU sozietateak ez zuen langilerik izan.

- **Ustiapeneko beste gastu batzuk.**

"Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafean, kanpoko zerbitzuengatik konpainiak izandako gastuak jasotzen dira, 2017ko eta 2018ko ekitaldiei dagozkionak.

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

<b>KANPO ZERBITZUAK</b>	<b>2018ko Ekitaldiak</b>	<b>2017ko Ekitaldiak</b>
Errentamenduak eta Kanonak	0,00	-206,69
Konponketak eta mantentze-lanak	31.011,05	68,00
Profesional independenteen zerbitzuak	16.699,13	17.450,96
Aseguru-primak	5.656,11	1.595,52
Zerbitzu bankarioak eta antzekoak	164,65	18,00
Hornidurak	67,39	82,79
Bestelako zerbitzuak	6.332,64	3.497,52
<b>Guztira</b>	<b>59.930,97</b>	<b>22.506,10</b>

2017 eta 2018 ekitaldietan, Profesional Independenteen Zerbitzuak epigrafean daude jasota espedienteak ixteak dakartzan gastu profesional guztiak; izan ere, hori da sozietatearen jarduera nagusia 2016ko uztailaren 20an egindako batzar orokor ezohikoan hura desegitea onetsi zenetik.

2018ko ekitaldian Konponketak eta Kontserbazioa partidari agertzen den zenbatekoa Navarreteko eta Artziniegako obretan izandako gauzatze akatsen zuzenketei dagokie. (10.1 oharra)

## **11. OHARRA. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK**

“Bestelako hornidurak” partidari honako mugimendu hauek izan ditu ekitaldian zehar:

	<b>2018ko Ekitaldia</b>	<b>2017ko Ekitaldia</b>
<b>Hasierako Saldoa</b>	<b>98.388,77</b>	<b>98.388,77</b>
Zuzkidurak	0,00	0,00
Aplikazioak	0,00	0,00
Lehengoratzea	-98.388,77	0,00
<b>Bukaerako Saldoa</b>	<b>0,00</b>	<b>98.388,77</b>

2016ko eta 2017ko ekitaldien itxieran, erantzukizunetarako hornidura egin zen, Arabarri SA sozietateak zuen partaidetza ehunekoaren arabera eta sozietate horrek zituen funts propio negatiboen arabera. 2018an hornidura hori itzuli da, eta ondorioz, sozietateak emaitza positiboa izan du 2018an eta funts propioak onbideratu ahal izan dira.

## **12. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK**

### **12.1 Ustiapeneko dirulaguntzak**

2017an eta 2018an ez da diru kopururik esleitu kontzeptu horrengatik.

Hala ere, 2018ko ekitaldian, partikularrei eta toki erakundeei emandako dirulaguntzen ezeztatze batzuk izan ziren, 1.096,82 euroko zenbatekoaz.

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

KONTZEPTUA	2018ko EKITALDIA	2017ko EKITALDIA
Arabako Foru Aldundiaren Dirulaguntzak	-1.096,82	0,00
- Partikularrei	-1.096,82	0,00
- Toki Erakundeei	0,00	0,00
<b>Ustiapeneko diru sarreraren egozpena</b>	<b>-1.096,82</b>	<b>0,00</b>

**13. OHARRA. LOTURIKO ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK**

**13.1 Transakzioak, bazkideekin**

- Toki erakunde akziodunek Arabako Lanak SAUri 2018ko ekitaldian agindutako mandatuen zerrenda

2017ko eta 2018ko ekitaldietan ez zaio mandaturik agindu Arabako Lanak SAUri.

**- Transakzioak eta saldoak Arabako Foru Aldundiarekin**

2017ko ekitaldian eta 2018ko ekitaldian ez da fakturazio berririk sortu Arabako Foru Aldundiari egindako mandatuengatik eta 2017ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n ez dago ordaindu gabeko saldorik kontzeptu horregatik.

2017 eta 2018 ekitaldietan Arabako Foru Aldundiak ez du ekarpenik egin galerak berdintzeko.

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n sozietateak Arabako Foru Aldundiarekin dituen saldoak:

KONTZEPTUA	2018/12/31n Saldoa	2017/12/31n Saldoa
Diruzaintzaren aurrerakin	225.000	125.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>225.000</b>	<b>125.000</b>

**13.2 Transakzioak eta saldoak Arabako Lanak SAUren partaidetzako Arabarri SA sozietatearekin**

2016ko ekainaren 21ean, sozietateak 487.552,64 euroko partaidetza mailegua izenpetu zuen Arabarri SArekin, zeinak epemuga bakarra 2018ko ekainaren 21a baitzuen (7.2 oharra).

2018ko ekitaldian, Arabarri SAK mailegu horri lotuta 40.000,00 euroko zenbatekoa kendu du, eta 2017ko ekitaldian, aldiz, 50.000,00 euro amortizatu zituen.

Beraz, 2018ko abenduaren 31n, sozietateak 397.552,64 euroko finantza saldo zorduna dauka, eta 2017ko abenduaren 31n, aldiz, 487.552,64 eurokoa zuen.

**13.3 Transakzioak, goi zuzendaritzako langileekin eta administrazio organoko kideekin**

Halaber, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan, likidatzaileei ez zaie lansaririk ordaindu haien kargua dela eta, eta ez dute saldorik kobratzeke edo ordaintzeke eduki.



**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

Arabako Foru Aldundiak erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatu du, sozietateko likidatzaileek paira ditzaketen arriskuak estaltzeko.

**13.4 Interes-gatazka egoera (KSL, 229.3 art.)**

Arabako Lanak SAUren likidatzaileek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapitaleko Sozietateen Legearen 229.3 artikuluan ezarrita dagoen moduan.

**14. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA**

**14.1 Auditoretza zerbitzuen ordainsariak**

2018. urtean Arabako Lanak SAUk ez dio Bnfix KLZ Auditores SLP enpresari lansaririk ordaindu, Arabako Foru Aldundiak kontratatu baititu auditoretza zerbitzuak. 2018ko ekitaldian eta auditoretza zerbitzuak emateagatik 2.800,00 euroko zenbatekoa sortu dela kalkulatu da, eta 2017ko ekitaldian, aldiz, 4.600,00 euro.

**14.2 Itxieraren ondoko egitateak**

Ez da jazo geroko gertakizunik, erregistro eta balorazio arauak aplikatzeagatik erantsitako urteko kontuen doikuntza dakarten inguruabarrak agerian jartzen dituenik, ez eta memoria honetan informazio gehigarria behar duenik ere.

**15. OHARRA. INGURUMEN ARLOAN EGINDAKO JARDUKETAK**

Sozietatea desegitea onetsi ostean sozietatearen jarduna, nagusiki, espedienteak ixtea izan denez, ez dago arrisku edo kontingentziarik puntu honetan.

**16. OHARRA. EKITALDIAN HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA-GERORATZEEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Sozietatea likidazio egoeran dagoenez gero, 2018ko ekitaldian ez da merkataritza eragiketen ondoriozko ordainketarik egin.

**17. OHARRA. LANGILEEN BESTE INFORMAZIO BAT ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK**

<b>Langileen datuak eta Arabako Foru Aldundiaren ekarpenak</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
Langile Gastuak	6.089,82	8.346,78

**18. OHARRA. LIKIDAZIO ERAGIKETEN TXOSTEN XEHAKATUA**

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

Indarreko Kapitaleko Sozietateen Legearen 388.2 artikuluan xedatutakoa betez, likidatzaileek izendatu zituztenetik 2018ko abenduaren 31 arte egindako likidazio eragiketen berri eman dute zehaztasunez.

- a) Kobrantzak eta ordainketak: Aldi honetan 170.552,47 euroko kobrantzak egin dira (91.019,04 euro 2017an), honela banatuta:

Arabako Foru Aldundiak emandako diruzaintzaren aurrerakin	100.000,00	0,00
Loza Udalaren diru sarrera Arabako Foru Aldundiak kobratutako 7. ziurtapenagatik	1.150,33	19.629,35
Arabarri, S.A.k kobratutako diru-kopuruak	1.899,78	2.306,45
Arabarri, S.A.ren kreditu-itzultzea	40.000,00	50.000,00
Epe luzerako fidantzak	0,00	1.604,44
Kudeaketa korrontearen bestelako dirusarrerak	23.168,46	252,95
<b>KOBROAK GUZTIRA</b>	<b>170.552,47</b>	<b>91.019,04</b>

Halaber, aldi honetan 131.629,69 euroko ordainketak egin dira (116.598,41 euro 2017an), honela banatuta:

<b>Kontzeptua</b>	<b>2018ko Ekitaldia</b>	<b>2017ko Ekitaldi</b>
Kanpoko zerbitzuak	73.507,06	29.408,83
Soldatak eta lansariak	0,00	8.346,78
Mutualitateak eta gizarte aseguruak	6.089,82	0,00
PFEZa	1.640,37	14.460,11
Mandatuak eta jasotako zerbitzuak	0,00	13.537,52
Dirulaguntzen ordainketa	50.309,98	50.845,17
Finantza-gastuak	82,46	0,00
<b>ORDAINKETAK GUZTIRA</b>	<b>131.629,69</b>	<b>116.598,41</b>

- b) Diru sarrerak eta gastuak: Aldi honetan 171.370,71 euroko sarrerak izan dira (252,95 euro 2017an), honela banatuta:

<b>Kontzeptua</b>	<b>2018ko Ekitaldia</b>	<b>2017ko Ekitaldi</b>
Aparteko diru-sarrerak	167.842,71	0,00
Kudeaketa korronteko bestelako diru-sarrerak	3.528,00	252,95
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>171.370,71</b>	<b>252,95</b>

Aldi honetan 66.190,05 euroko gastuak izan dira (30.852,88 euro 2017an), honela banatuta:

<b>Kontzeptua</b>	<b>2018ko Ekitaldia</b>	<b>2017ko Ekitaldi</b>
Kanpoko zerbitzuak	59.930,97	22.506,10
Soldatak eta lansariak	0,00	8.346,78
Mutualitateak eta Gizarte-Segurantza	6.089,82	0,00
Kontu korronteko bestelako gastuak	86,80	0,00
Finantza-gastuak	82,46	0,00
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>66.190,05</b>	<b>30.852,88</b>

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

**2018KO KUDEAKETAREN TXOSTENA**

Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onetsi zuen 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 262. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, Arabako Lanak SAUren likidatzaileak Gasteizen bildu ziren 2019ko martxoaren 28an, eta 2018ko ekitaldiko kudeaketaren txostena egin zuten; likidatzaile guztiek sinatu zuten.

2016ko uztailaren 20an sozietatearen akziodunen ezohiko batzar orokorrak sozietatea desegitea, administrazio organoa uztea eta Iñaki Guillerna Saenz jauna eta Iñaki Aldekogarai Labaka jauna likidatzaile solidario izendatzea erabaki zuen, 2016ko abuztuaren 2an Luis Perez Lazarraga notarioaren aurrean haren protokolo 926 zenbakiarekin emandako eskritura publikoan jasotzen denez.

Ondorioz, egun harrez geroztik, sozietatearen jarduera nagusiak entitatea likidatzeko behar ziren ekintzak izan dira, eta 2016ko azaroaren 1az geroztik haren langile guztiak Arabako Foru Aldundiaren mendeko erakundeetan subrogatu dira.

Erakundeak ez dauka akzio propiorik. Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 15eko 759/2016 Erabakiaren bidez, Arabako Lanak SAUren akzio bana emateko lurraldeko toki erakundeek izenpetutako kontratuen itzulketa eskubidea Arabako Foru Aldundiaren alde erabili zen.

2018ko ekitaldian, sozietatea pertson bakarrekoa izan zen, Luis Pérez de Lazárraga notarioaren aurrean 2018ko uztailaren 10ean emandako protokolo 1.002 eskrituran agertzen denaren arabera.

ARABAKO LANAK SAU, LIKIDAZIOAN

**2018KO ABENDUAREN 31KO TXOSTENA**

**URTEKO KONTUEN AURKEZPENA**

Likidatzaileek urteko kontu hauek aurkezten dituzte, Gasteizen, 2019ko martxoaren 28an.

Urteko kontu hauek orriaren alde batetik bakarrik inprimatu dira, 1etik 27ra zenbatuta, eta sozietatearen likidatzaileak sinatu dituzte, ados daudela erakusteko.

**LIKIDATZAILEAK:**

Iñaki Aldekogarai Labaka jn.

Iñaki Guillerna Sáenz jn.